

OIARTZUNGO HIKA PATRIKAN



INGO
ÑEU?

INGO
YEU!

Egilea: Ttur-Ttur Euskalzaleon Bilgunea

Ilustrazioak: Idoia Beratarbide Arrieta

Diseinua: Dixidu Diseinu Grafikoa

OIARTZUNGO HIKA PATRIKAN

Eskerrak Badihardugu Euskara Elkarteari,
bereziki Idoia Etxeberria Elorzari,
emandako aholku eta babesagatik.

Ingo xonau!



SARRERA

Hika hizketa lagunari edo solaskideari zuzentzeko modu informala da. Hika diogu, baina aitortu dezagun, deus baino lehen, hika horren atzean hitanoa ere ezkutatzen dela; hau da, guk hitanoz hitz egiteari hika esaten badiogu ere, ez dira gauza bera. Halere, liburuxka honen helburua herrikoia denez, hika erabiliko dugu bi terminoak adierazteko.

Liburuxka honekin hika gerturatu nahi diegu herritarrei, galtzear dagoen hizkera hau (batez ere, emakumezkoekikoa) berreskuratu eta kalera atera dezagun denon artean. Hikaz busti nahi dugu Oiartzun, horregatik, liburuxka honetan Oiartzungo hika topatuko duzu, zurea, gurea. Ingo ñeu, ingo yeu?



Hi, san dit ez
dutela
liburuxka berrik!
Ni erki moldatzen
nak hika!

Hartzak,
ongi torko dik ta!

Bilakaera

Aspaldiko euskaldunek hika hitz egiten zioten elkarri, HI solaskideari eta ZU solaskideei: *hi* gaurko *zu* zen eta *zu* gaurko *zuek*. EGON aditzarekin argi ikus daiteke jokabide zahar hori:

NOR singularra

Ni NAGO

Hi HAGO

Hura DAGO

NOR plurala

Gu GAUDE

Zu ZAUDE

Haiek DAUDE

Erdi Aroan, ordea, tratamendu bikoiztasuna sortu zen hizkuntza askotan, baita euskaran ere. Tratamendu bikoiztasuna solaskide arruntari (lagunari, ahizpari, bikoteari...) eta goi-mailako solaskideari (apaizari, medikuari, etxe batzuetan gurasoei...), hizkuntzaren bidez, tratu desberdina ematea da. Horrela, tratu arruntan hika erabiltzen segi zuen euskaldunak (HI) eta errespetuzko tratuan plurala erabiltzen hasi zen (ZU).

Denborarekin, ZU errespetuzko trataera zabaldu eta tratu arruntan ere erabiltzen hasi zen, HI hori baztertuz eta ZU plurala singular bihurtuz:

NOR singularra

Ni NAGO

(Hi HAGO)

Zu ZAUDE

Hura DAGO

Berori DAGO

NOR plurala

Gu GAUDE

ZUEK ZAUDETE

Haiek DAUDE

Txoixua arrautza parikin,
itxekoandre!

Zer nahi du
berorrek?



Beraz, pluralaren lekua “hutsik” geratu zen eta plural berria edo birplurala sortu zen: ZUEK. Bestalde, errespetuzko trataera berria sortzeko beharra zer ikusi zen eta BERORI sortu zen.

Aldaketa horien ondorioz, hika azpi-leku batean geratu eta zuka nagusitu zen. Gainera, hikak konnotazio txarra hartu zuen, baserritarren hizkera zela uste baitzen; hizkera gordin, zakar eta gogorra, errespetu gutxiko mintzamoldea. Hori dela eta, hikaren transmisioa moztu egin da etxe askotan. Eta transmisioaren etenak hika desagertzeko bidean jarri du gaur arte.

Gizonezkoekiko hika (toka) egoera hobean dago emakumezkoekiko hika (noka) baino. Halere, ez da *etxatxeruk* botatzeko modukoa eta denok dugu zer ikasia hizkera jator honi eusteko.

Mutilek zergatik mantendu dute eta neskek ez?

- Neskek hika egitea gaizki ikusia izan da. Zakar eta gogor adjektiboak, nonbait, ez zetozen emakumearekin bat, emakumeak fina izan behar baitzuen. Mutilak beti izan du askatasun handiagoa.
- Hika mutilen kontu gisa hartu izan da, eta guraso gehienek semearekin hika egiten jarraitu dute; alabarekin, berriz, ez.
- Etxean hika jaso ez duen mutil askok kalean ikasi du, sozializazio-eremuetan: tabernetan, elkarteetan, kirolean, ehiza-lagunekin, kuadrillan...

Mutillak bai ta
guk ez? Nik e
ikasi nahi ñet!

Bai, ta neskan artian e
modan jarko ñeu!



Ikuspegi aldaketa

Hikaren inguruko ikuspegia aldatu egin da: eskerrak! Orain, orokorrean, konnotazio positiboa du.

Hikak konfiantza, konplizitatea eta gertutasuna sortzen du hizketagunaren artean; identitate marka bat da, nolabaiteko lotura eragiten du gure sustraiekin eta hizkuntzarekin. Horrez gain, komunikatzeko beste baliabide bat eskaintzen digu, baliabide informal eta naturalago bat.

Gainera, hikak badu garrantzia emakumeen ahalduz ere, noka baliabide egokia baita emakumeen arteko konplizitatea sustatzeko eta emakume-gizonen arteko harreman horizontalagoak eraikitzen laguntzeko.

Beraz, berdintasunaren aldeko keinu bat izan daiteke hika, baina emakume eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko keinua. Bi genero horien marka hikaren berezitasuna da; hika egiten dugunean, parean duguna emakume edo gizona izan, aditz-forma aldatu egiten baita: ingo **ñeu** (noka) edo ingo **yeu** (toka).

Hala eta guztiz ere, hika egungo jendartera moldatu behar dugu eta ezin ditugu ahaztu gizonezko eta emakumezko sentitzen ez direnak. Horiek errespetatzea ezinbestekoa da eta hika biren arteko tratua denez, norberak adostuko du ez bitarra den pertsonarekin zein moldetan hitz egin.

ERABILERA OHITURAK

Zeinekin bai eta zeinekin ez?

Zeini egin diezaiokegu hika? Edozeini ez zaio hika egin izan: berdinen artean eta konfiantza giroan besterik ez da erabili izan. Hori bai, gaur egun, gero eta salbuespen gehiago egiten dira, hikaren biziraupenerako tradizioa aldatuz baitoa.

Hala ere, komeni da tradizioak ezarri dituen erabilera ohiturak zeintzuk izan diren jakitea:

EZ

- 1- Gurasoei eta askoz helduagoak direnei ez.
- 2- Ezezagunei normalean ez (nahiz mutilen artean nahiko zabaldua egon).
- 3- Giro oso formaletan ez eta estatus sozial handiagoa duenari ere ez.
- 4- Umeei bai, baina oso txikiei ez: kozkortu arte ez.
- 5- Senar-emazteak beren artean ez: ezkondu aurretik bai, gero ez.
- 6- Komunikabideetan, hitzaldietan, jende aurrean... normalean ez.

Hoi duk
errespetu falta!

Egualdi ona
ziok, ez?



BAI

- 1- Gurasoek eta helduagoek seme-alabei eta gazteei bai.
- 2- Anai-arreben artean bai.
- 3- Adinkideen artean eta gazteagoei bai, konfiantza pixka bat baldin badago.
- 4- Lagunen eta lankideen artean bai, adin desberdinetakoak izanda ere.
- 5- Animaliei bai (normalean toka), erleei izan ezik.
- 6- Norbere buruari bai.
- 7- Hikalagunari bai (hau berria da, baina ohitura bihurtuko dugu!).

Zer ziozk, ba?

Hi, ni neska nak e!
Hika neska bezela in
ber diak!

Gaur egungo erabilera okerrak

- Neskei toka egitea.
- *Zu* eta *hi*, biak batera erabiltzea elkarrizketa berean.
- Hikako formak ez dagokionean erabiltzea. Adibidez, menpeko esaldietan edo talde mixtoetan gaudenean.



ADITZ GUZTIAK HIKA?

ZUren ordeaz beti HI

Hika hitz egitean, bigarren pertsona ez da ZU, HI da:

Zu etorri zara > Hi torri ñaz/yaz (haiz)

HI pertsonarekin, hikako formak erabiliko ditugu beti, baita menpeko esaldietan ere:

Mendira jun ez ñazelako/yazelako (haizelako)
damututa ñoz/yoz (hago)

1. eta 3. pertsonetako adizkiak ere hikako formetan esaten dira:

NI	Gaur beandu jeiki nan/nak
HURA	Mikel e torko dun/duk
GU	Ingo ñeu/yeu?
HAIEK	Mutill haik guri beira zabiltzan/zabiltzak

ZUEK beti da ZUEK

2. pertsonako pluralean ezinezkoa da aditzak hika jartzea.

Zuek zakillak zazte!

Eon ñai ixillik!



Menpeko esaldietan, HI denean besterik ez

Bi esaldi elkartzen direnean, bat menpekoa izaten da eta bestea nagusia. Hika hitz egitean, esaldi nagusiko aditza hikako forman erabiliko dugu beti (ZUEK ez bada). Menpeko esaldiko aditza, berriz, HI denean besterik ez da erabiltzen hikako forman.

- NI Jeikitzen **nanenian/nakenian**, sekulako gosia eukitzen **ñet/dit**
Jeikitzen **nazenian**, sekulako gosia eukitzen **ñet/dit**
- NIK Gaur erosi **(di)ñeten/diten** mugikorra izortua **zion/ziok**
Gaur erosi **duten** mugikorra izortua **zion/ziok**
- HURA Gosiak **zionelako/ziokelako** torri **dun/duk** horren auro
Gosiak **dolako** torri **dun/duk** horren auro
- GU Euskaldunak **gattunelako/gattukelako** utzi **ziuten/ziutek** pasten
Euskaldunak **galako** utzi **ziuten/ziutek** pasten

Askotan aisa ikusten da aditza menpekoa den edo ez, hasiera edo bukaeran markaren bat izaten duelako (-ENEAN, -EN, -ELA, -ELAKO, BA-...), baina ez beti.

- HAREK Junek in **diñen/diken** lanan ordaiña jasotzeko **zion/ziok** oaindik
Junek in **dun** lanan ordaiña jasotzeko **zion/ziok** oaindik

Baldintzetan, galderetan, harridurazko esaldietan eta aginduetan bai

Herri batzuetan eta batuan baldintzetan, galderetan, harridurazko esaldietan eta aginduetan ez da hikako formarik erabiltzen, baina Oiartzunen bai. Ez dakigu beti hala izan den edo ez, baina gaur egun adineko pertsonak ere horrela erabiltzen dute:

Torko **bayitzanen/bayitzan**, ongi pasko **yuken/yukek**

Ze san **din/dik**? Torko **dun/duk** afaltzea?

Hoik kuzkuzero batzuk **ttun/ttuk**!

Hi, **sankian/sankiak** hire telefono zenbakiya



Nola garbittuko ñeu,
ba, arropa,
labadora ez bazabillen?

Etzekit...
Garbi zik irriyun!

Genero-marka gabeko aditzak

Herri batzuetan eta batuan badira hikako forma batzuk genero markarik ez dutenak: haiz, habil, haut, hago... Baina Oiartzunen horiei ere genero-marka jartzen diegu: **ñiaz/yaz**, **ñaill/yaill**, **ñoz/yoz**...

Ta hi zer yaz, arra
o emia?

Mankian muxu
ta kuskoun!



ADITZ-TAULAK: IRIZPIDEAK

Aukeraketa

Gehien erabiltzen diren aditzak bildu ditugu liburuxka honetan, ez denak, ordea. Adizki guziak ikusteko aukera www.oiartzuarrenbaitan.eus orrialdean dago.

Aldaerak

Beste herri batzuetan bezala, Oiartzunen ere, auzoz-auzo edota etxez-etxe hitz egiten den hika desberdina izan daiteke, baina ez dago desberdintasun handirik. Konparazio batera, ohikoak dira e/a/o aldaerak: ñeu, ñau, ñou; yeu, you... Ez dira garrantzi handiko aldaketak eta taulan denak jarri ezin direnez, aldaera bakarra aukeratu dugu ia kasu guzietan.

Esan eta idatzi desberdin

Liburuxka honen eta aditz-aula hauen helburua ahozko erabilera da, horrenbestez, adizkiak ahoz esaten diren moduan heldu dira tauletan. Dena dela, hasperenari dagokionez, orain arteko adibideetan bezala eta irudietako elkarrizketetan bezala, <h> grafia batuan bezalaxe erabiliko da, nahiz eta ahoz ez ahoskatu.

Bestalde, badira hitz egitean tarteko hizkiren bat gal dezaketen adizkiak eta hizki horiek parentesi artean adierazi ditugu: za(b)illen/za(b)illek, (z)izkin/(z)izkik... Hitzak elkartzean ere, baliteke, hizki gehiago “jatea”, baina ezinezkoa da horiek guziak taulan erakustea.

Azkenik, izartxoaren (*) bidez adierazitako formak desegoki erabiltzen dira; horien aurreko aditz-forma batuak dira hobestekoak.

NOR

ORAINALDIA

Naiz > nan/nak

Zara > ñaz/yaz

Da > dun/duk

Gara > gattun/gattuk

Dira > ttun/ttuk

Erki aspertu
niñun
aurrekun
partidun!

LEHENALDIA

Nintzen > niñun, niñunen/
niyun, niyunen

Zinen > yitzanen/yitzan

Zen > yunen/yun

Ginen > gattunen/gattuken

Ziren > ttunen/ttuken

Beste gauza
batzutan
pentsatzen
eongo
yitzanen
ta!



NOR-NORI

ORAINALDIA

Zait > zin/zik, zit(t)

Zaizu > zain/zaik

Zaio > zion/ziok

Zaigu > zi(g)un/zi(g)uk

Zaie > zayen/zayek

LEHENALDIA

Zitzaidan > zi(a)nen/zi(a)ken

Zitzaizun > zinen/ziken

Zitzaion > zionen/zioken

Zitzaigun > ziunen/ziuken

Zitzaien > ziotenen/zioteken



Torri din
hilleroko
bixita?

Torri zin, bai!

NOR-NORK

ORAINALDIA

NI

Nauzu > nan/nak

Nau > nain, zin*/naik, zik*

Naute > naiten, ziten*/
naitek, zitek*

HI

Zaitut > ñet/yat

Zaitu > ñau/yau

Zaitugu > ñau/yau

Zaituzte > ñaute/yaute

LEHENALDIA

Ninduzun > Nindunan, niyunen/
ninduan, niyun

Ninduen > Nindunan, ziñen*/
ninduan, ziken*

Ninduten > ninditenan, zitenen*/
ninditean, ziteken*

Zintudan > niñen/nin

Zintuen > ziñen/zin

Zintugun > geniñen/genin

Zintuzten > zitenen/ziten

ORAINALDIA**HURA**

Dut > ñet/dit

Duzu > dun/duk

Du > din/dik

Dugu > ñeu/yeu

Dute > tten/ttek

GU

Gaituzu > gattun/gattuk

Gaitu > gattin, ziun*/
gattik, ziuk*

Gaituzte > gait(t)izten, ziuten*/
gait(t)iztek, ziutek*

LEHENALDIA

Nuen > niñen/nin

Zenuen > yunen/yun

Zuen > ziñen/zin

Genuen > geniñen/genin

Zuten > zitenen/ziten

Gintuzun > gintunan, giñunen/
gintuan, giñun

Gintuen > gintinan, ziunen*/
gintian, ziuken*

Gintuzten > gintiztenan/
gintiztean

NOR-NORK

ORAINALDIA

HAIEK

Ditut > ttiñet/ttit

Dituzu > ttun/ttuk

Ditu > ttin/ttik

Ditugu > ttiñeu/ttiyeu

Dituzte > ttizten/ttiztek

LEHENALDIA

Nituen > nittinen/nittin

Zenituen > ttunen/ttuen

Zituen > zittinen/zittin

Genituen > genittinen/genittin

Zituzten > zittiztenen/zittizten

Pozik kusten
ttiñet hire
lagunak!

Bai, azterketa
guziyak
aprobatu
ttizten ta!

Karri duk
txanpaña?

Bai, atzo
erosi niñen!



NOR-NORI-NORK

ORAINALDIA

NIK

Dizut > diñat, ñet/dit

Diot > zionat, zioñet/ziot

Diet > ziotenat/ziotet

HIK

Didazu > dian/diak

Diozu > yon/yok

Diguzu > digun/diguk

Diezu > yon/yok

LEHENALDIA

Nizun > niñen/niken

Nion > nionen/nioken

Nien > nionen/nioken

Zenidan > dianen, yianen/
diaken, yiaken

Zenion > yonen/yon

Zenigun > diunen, yiunen/
diuken, yiuken

Zenien > yonen/yon

NOR-NORI-NORK

ORAINALDIA

HAREK

Dit > zin/zik

Dizu > din/dik

Dio > zion/ziok

Digu > ziun/ziuk

Die > zioten/ziotek

GUK

Dizugu > diñau, ñeu/yeu

Diogu > zionau/ziou

Diegu > zionau/ziou

LEHENALDIA

Zidan > ziñen/ziken

Zizun > ziñen/zin

Zion > zionen/zioken

zigun > ziunen/ziuken

Zien > zionen/zioken

Genizun > geniñen/geniken

Genion > genionen/genioken

Genien > genionen/genioken

ORAINALDIA

HAIEK

Didate > ziten/zitek

Dizute > tten/ttek

Diote > zioten/ziotek

Digute > ziuten/ziutek

Diete > zieten/zietek

LEHENALDIA

Zidaten > zitenen/ziteken

Zizuten > zitenen/ziten

Zioten > ziotenen/zioteken

Ziguten > ziutenen/ziuteken

Zieten > ziotenen/zioteken

Iya denai san
zionau esperun
ñozela

Bai... amonai
e atzo san
yon, o?



Mikelek man din notiziya, ez?

Bai, sekulako sustua man tzin!



EDUKI

ORAINALDIA

Daukat > zakanet/zakat

Daukazu > dakan/dakak

Dauka > zakan/zakak

Daukagu > zakañeu/zakayeu

Daukate > zakaten/zakatek

LEHENALDIA

Neukan > nakanen/nakaken

Zeneukan > yakanen/yakaken

Zeukan > zakanen/zakaken

Geneukan > genekanen/genekaken

Zeukaten > zakatenen/zakateken

Hik kontzertura
joteko asmoik bakan?

Asmua bazakanet,
biño uan etzekiñet
ze in



HELDU (ETORRI)

ORAINALDIA

Nator > heldu nan/nak

Zatoz > heldu ñaz/yaz

Dator > heldu dun/duk

Gatoz > heldu gattun/gattuk

Datoz > heldu ttun/ttuk

LEHENALDIA

Nentorren > heldu niyunen/
niyun

Zentozen > heldu yitzanen/
yitzan

Zetorren > heldu yunen/yun

Gentozen > heldu gattunen/
gattuken

Zetozen > heldu ttunen/ttuken



Barkatu,
beandu
heldu nak

Lo gutxi
inta heldu
ñaz hi,
parrandera
hoi!

Zer zabillek hoi,
honbeste zaratakin?



Etxian obretan zabiltzan

ORAINALDIA

Nabil > na(b)illen/na(b)illek

Zabiltza > ñaill/yaill

Dabil > za(b)illen/za(b)illek

Gabiltza > ga(b)iltzan/ga(b)iltzak

Dabiltza > zabiltzan/zabiltzak

LEHENALDIA

Nenbilen > na(b)illenen/
na(b)illeken

Zenbiltzan > ya(b)illenen/
ya(b)illenen

Zebilen > za(b)illenen/
za(b)illeken

Genbiltzan > ga(b)iltzanen/
ga(b)iltzak

Zebiltzan > za(b)iltzanen/
za(b)iltzak

EGON

ORAINALDIA

Nago > nion/niok

Zaude > ñoz/yo

Dago > zion/ziok

Gaude > gauden/gaudek

Daude > ziozten/zioztek

LEHENALDIA

Nengoen > nionen/nioken

Zeunden > yonen/yoken

Zegoen > zionen/zioken

Geunden > geundenen/
geundenen

Zeuden > zioztenen/ziozteken

Zuek
futbola
kusten?
Etzionen
beste
deus?

Aspertuk geundenen
pelikula txar bat kusten



JOAN

ORAINALDIA

Noa > nian/niak

Zoaz > ñua/yua

Doa > zian/ziak

Goaz > gizen/gizek

Doaz > zi(a)zten/zi(a)ztek

LEHENALDIA

Nindoan > nianen/niaken

Zindoazen > yuanen/yuaken

Zihoan > zianen/ziaken

Gindoazen > gizenen/gizeken

Zihoazen > ziaztenen/ziazteken

Mendira gizen!

Hi baldin bañua,
ni re banian!



JAKIN

ORAINALDIA

Dakit > zakiñet/zakit

Dakizu > dakin/dakik

Daki > zakin/zakik

Dakigu > zakiñeu/zakiyeu

Dakite > zakiten/zakitek

LEHENALDIA

Nekien > nakiñen/nakiken

Zenekien > yakiñen/yakiken


Zekien > zakiñen/zakiken

Genekien > genekiñen/genekiken

Zekiten > zakitenen/zakiteken

Hik bakik
Oier noiz
heldu den?

Etzekit...
guk etzakiyeu
deus



ERABILI

ORAINALDIA

Darabilt > za(b)ilkiñet/za(b)ilkit

Darabilzu > da(b)ilkin/da(b)ilkik

Darabil > za(b)illen/za(b)illek

Darabilgu > za(b)ilkiñeu/
za(b)ilkiyeu

Darabilte > za(b)ilkiten/za(b)ilkitek

LEHENALDIA

Nerabilen > na(b)illenen/
na(b)illeken

Zenerabilen > ya(b)ilkinen/
ya(b)ilkiken

Zerabilen > za(b)ilkinen/
za(b)ilkiken

Generabilen > generabilenen/
generabileken

Zerabilten > za(b)ilkitenen/
za(b)ilkiteken



Zer dabilkin
eskuartin?

Erakusketa
bat
antolatzia
zabilkit
buruan...

BESTE ADITZ BATZUK

BALDINTZA (alegiazkoa)

NOR

BALDINTZA

Bazina > bayitzanen/bayitzan

ONDORIOA (orainaldia)

Nintzateke > niyuken/niyukek

Zinateke > yitzaken/yitzakek

Litzateke > yuken/yukek

Ginateke > gattuken/gattukek

Lirateke > ttuken/ttukek

NOR-NORK

BALDINTZA

Baninduzu > banindun/baninduk

Bazenu > bayunen/bayun

ONDORIOA (orainaldia)

Nuke > niken/nikek

Zenuke > yuken/yukek

Luke > liken/likek

Genuke > geniken/genikek

Lukete > liteken/litekek

Aberatsa bayitzanen,
noa jongo yitzaken?

Kariben eongo gattuken!



AHALERA

NOR

ORAINALDIA

Naiteke > nintteken/ninttekek

Zaitezke > hintteken/hinttekek

Daiteke > litteken, ditteken/
littekek, dittekek

Gaitezke > gattezken/gattezkek

Daitezke > littezken, dattezken/
littezkek, dattezkek

LEHENALDIA

Ninteeke > ninttekenen/
nitteken

Zinteeke > hinttekenen/
hintteken

Ziteeken > zittekenen/zitteken

Ginteeke > gittezenen/
ginteezen

Ziteezen > zittezenen/
ziteezen

Gustoa ingo niken biaje hoi!

In genezakek nahi baduk!



NOR-NORK

ORAINALDIA

Dezaket > zezakenet/zezaket

Dezakezu > dezaken/dezakek

Dezake > zezaken/zezakek

Dezakegu > genezaken/
genezakek

Dezakete > zezaketen/zezaketek

LEHENALDIA

Nezakeen > nezakenen/
nezakeken

Zenezakeen > yezakenen/
yezakeken

Zeakeen > zezakenen/
zezakeken

Genezakeen > genezakenen/
genezakeken

Zezaketen > zezaketenen/
zezaketeken

AGINTERA

NOR

Zaitez > ñai/yai

NOR-NORK

Nazazu > nazan/nazak

Ezazu > -(t)zan/-(t)zak

Gaitzazu > gaitzan/gaitzak

Itzazu > -(t)zin/-(t)zik

NOR-NORI-NORK


lezadazu > -kian/-kiak

lezaiozu > -kiyon/-kiyok

lezaguzu > -kiun/-kiuk

lezaien > -kizkiyen/-kizkiyek

Inkian kaso ta
eon ñai ixillik puska batin!



AURKIBIDEA

SARRERA	4
Bilakaera	5
Mutilak zergatik mantendu dute eta neskak ez?	7
Ikuspegi aldaketa	9

ERABILERA OHITUAK

Zeinekin bai eta zeinekin ez?	10
Gaur egungo erabilera okerrak.....	11

ADITZ GUZTIAK HIKA?

ZUren ordeztu beti HI	12
Menpeko esaldietan, HI denean besterik ez	14
Baldintzetan, galderetan, harridurazko esaldietan eta aginduetan bai	15
Genero-marka gabeko aditzak	16

ADITZ-TAULAK: IRIZPIDEAK

Aukeraketa	17
Aldaerak	17
Esan eta idatzi desberdin	17

